**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GARRAIOKO ARBITRAJE BATZORDEA**

JAKINARAZPEN-ZEDULA, Euskal Autonomia Erkidegoko Garraioko Arbitraje Batzordeak emandako arbitrajeko laudoari buruzkoa. 6093

## Pribatuen Iragarkiak

**IEFPS POLITÉCNICO EASO GLHBI**

IRAGARKIA, teknikari espezialista titulua galdu dela jakinarazteko dena (Adarra: Irudia eta Soinua; espezialitatea: programak egitea). 6094

**IES ZARAOBE BHI**

IRAGARKIA, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulu bat galdu dela jakinarazteko. 6095

**LANTIK, SOCIEDAD ANÓNIMA**

IRAGARKIA, «Biscay Technologies of Information and Knowledge (Biscay TIK)» proiektua garatzeko lehiaketari buruzkoa. 6095

# Xedapen Orokorrak

### OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

### 1642

36/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, Lehiaren Babeseko Euskal Auzitegia sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan Lehiaren Babes Zerbitzuaren eginkizunak ezarri zituen dekretua aldatzeko dena.

1999ko azaroaren 11n Auzitegi Konstituzionalak emandako epaiaren ondorioz, banatuta geratu ziren lehiaren defentsarako arloko eskumenak; gero, Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko otsailaren 21eko 1/2002 Legea promulgatu zen. Horrenbestez, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretua onetsi zen, Autonomia Erkidegoak arlo honetan dituen eskumenak bere

**JUNTA ARBITRAL DEL TRANSPORTE DEL PAÍS VASCO**

CÉDULA DE NOTIFICACIÓN sobre laudo arbitral de la Junta Arbitral del Transporte del País Vasco. 6093

## Anuncios Particulares

**IEFPS POLITÉCNICO EASO GLHBI**

ANUNCIO para hacer público el extravío de un Título de Técnico Especialista, en la Rama Imagen y Sonido, Especialidad Realización de Programas. 6094

**IES ZARAOBE BHI**

ANUNCIO relativo al extravío de un Título de Graduado en Educación Secundaria Obligatoria. 6095

**LANTIK, S.A.**

ANUNCIO relativo al concurso para el desarrollo del proyecto «Biscay Technologies of Information and Knowledge (Biscay TIK)». 6095

# Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

### 1642

DECRETO 36/2008, de 4 de marzo, de modificación del Decreto de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Como consecuencia de la distribución competencial en materia de defensa de la competencia que se derivó de la Sentencia del Tribunal Constitucional de 11 de noviembre de 1999 y la posterior promulgación de la Ley 1/2002, de 21 de febrero, de Coordinación de las Competencias del Estado y las Comunidades Autónomas en materia de Defensa de la Competencia, se aprobó el Decreto 81/2005, de 12 de abril de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, con el fin de asu-

gain hartzeko, antolaketako egitura mugatu baten baitan.

2007ko irailaren 1ean jarri zen indarrean Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea, uztailaren 17ko 16/1989 Legea indargabetu zuena. Izan ere, lege horren xedea da lehiaren defentsarako sistema modernizatzea eta hobetzea, Erkidegoko eredura egokitzea eta koordinatzeko mekanismoak indartzea, araudia autonomia-erkidegoetako eskudun organoek nahiz sektoreetako organo arautzaileek aplika dezaten.

Legeak aldaketa handiak egin ditu, batetik, lehiaren defentsarako Estatuko organoen itxuran eta horien eginkizunen banaketan -Lehiaren Batzorde Nazionala sortu da, Estatuan eskumena duen agintaritza bakarra eta orain arte lehiaren defentsarako Zerbitzu eta Auzitegi bezala ezagutzen zirenak batzen dituena-, eta bestetik, lehia murrizten duten jokaeren aurka egiteko aplika daitezkeen prozeduren erregulazioan. Era berean, garrantzi berezia eman zaio lehia sustatzeko zereginari, hala nola, txostenak, azterlanak eta gomendioak landuz.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak martxan egon diren bitartean lortu duten esperientzia kontuan hartuta, eta araudi berriaren aldaketen ondorioz, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretua aldatu behar da, lege-esparru berrira egokitu behar delako, eta horietako bakoitzak izango dituen eginkizunak argitu eta arrazionalizatu behar direlako. Izan ere, Estatuko lege berriak areagotu egin ditu lehiaren defentsarako autonomia-organoek dituzten eginkizunak; horretarako, euskal organoei egokitu zaizkien eskumenak dagokien moduan esleitu behar dizkie legeak lehenik, funtzionamendu-egitura eraginkorra izan dadin eta lehia sustatzen duen egitura aktiboa, betiere, Estatuko legeak ematen dituen jardunbide berrien bitartez.

Hori dela eta, Auzitegia eta Zerbitzua organo bakarrean ez biltzeko sistema mantendu da, gaur egun bezala, Euskal Administrazioa bere burua antolatzeko gai dela kontuan hartuta. Dena den, bi organo horiek sustapenaren arloan abiarazten dituzten jarduketak koordinatuta egotea aurreikusi da, horrela sistema eraginkorragoa izango delako eta bitartekoak arrazionalizatuago egongo direlako.

Auzitegiak, oro har, prozeduratan ebazpenak emateko zeregina izaten jarraituko du, eta Zerbitzuak jarraituko du ebazpenoi bide ematen, baina sistema arrazionalagoa eta eraginkorragoa izateko helburu hori betetze aldera, euskal organo biek koordinatuta eta aurre-

mir las competencias en esta materia en la Comunidad Autónoma a través de una estructura moderada en lo que se refiere a su dimensionamiento organizativo.

El pasado 1 de septiembre de 2007 entró en vigor la Ley 15/2007, de 3 de julio, de Defensa de la Competencia, que derogó la Ley 16/1989, de 17 de julio, cuyo objeto es la modernización y mejora del sistema de defensa de la competencia, su adaptación al modelo comunitario, así como el reforzamiento de los mecanismos de coordinación para la aplicación de la normativa tanto por los órganos competentes de las Comunidades Autónomas como por los reguladores sectoriales.

Dicha ley introduce sustanciales modificaciones tanto en la configuración de los órganos de defensa de la competencia estatales y en la distribución de sus funciones, -se crea la Comisión Nacional de la Competencia, única autoridad competente de ámbito estatal que integra a los que hasta ahora se conocían como Servicio y Tribunal de defensa de la competencia-, como en la regulación de los procedimientos a aplicar en la lucha contra las conductas restrictivas de la competencia. Así mismo, se presta especial relevancia a la función de promoción de la competencia a través de diversas actuaciones como la realización de informes, estudios y recomendaciones.

Los cambios operados por la nueva normativa, así como la experiencia acumulada por el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y el Servicio de Defensa de la Competencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi durante el tiempo que llevan funcionando, demandan la modificación del Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi, tanto para adaptarlo al nuevo marco legal como para clarificar y racionalizar las funciones a desarrollar por cada uno de ellos. Ello porque la nueva Ley estatal incrementa el número de funciones a desarrollar por los órganos autonómicos de defensa de la competencia lo que requiere su oportuna asignación a los órganos vascos en esta materia en la búsqueda de una estructura eficaz en su funcionamiento y activa en la promoción de la competencia desde las diferentes actuaciones que posibilita la nueva Ley estatal.

En este escenario, se ha optado por el mantenimiento del actual sistema de no integración en un único órgano del Tribunal y del Servicio, en base a la capacidad de autoorganización de la Administración vasca, si bien se prevé la planificación coordinada de las actuaciones que en el campo de la promoción realicen, en aras a una mayor eficacia del sistema y racionalidad de los medios.

En este sentido, si bien el Tribunal mantiene, en términos generales, las funciones resolutorias de los procedimientos cuya instrucción corresponde al Servicio, esa búsqueda de la racionalidad y eficacia del sistema aconseja que, sobre una efectiva actuación coordinada

tik planifikatuta jardun behar dute, prozedurak ebaztea edo instruitzea (hurrenez hurren) ez diren beste eginkizun batzuk ere eginez.

Horrela, Auzitegiak ondoko eginkizunak izango ditu, besteak beste: EAEko Administrazio Publikoek ematen dituzten diru-laguntza publikoei buruzko txostenak egitea, eta kontzentrazioen prozedurako bigarrenenean derrigorrezko txostena egitea edo merkataritza establezimendu handientzako lizentziak emateko prozedurei buruzko derrigorrezko txostena ematea. Eginkizun horiek baino gehiago izango ditu Auzitegiak, baina soilik aipatu dira ebazteko eginkizunetatik kanpo dituen garrantzitsuenetariko bi.

Zerbitzuak, besteak beste, ondoko eginkizunak izango ditu: otsailaren 21eko 1/2002 Legearen 5. artikuluko Lau idatz-zatian ezartzen den aginduzko txostena egitea, instrukzioaren fasean eskatzen denean; eta sektoreetako organo arautzaileei Estatuko Legeko 17.2.d) artikuluan ezartzen den txosten ez-loteslea egiteko eskatzea. Azken finean, oro har esleituta duen instruitzeko funtzioa osatzeko eginkizunak dira horiek. Hau da, eginkizunen esleipen zorrotza edo organo bakoitzaren arabera ebatzi eta instruitzeko zeregin bakarrak alde batera utzi nahi izan dira. Aitzitik, Euskadiren eskumena defendatzeko esku hartzen duen organo bakoitzak garrantzi objektiboa duela kontuan hartuta eta, gainera, eskumena behar bezala sustatzeko arlo hau nahitaez planifikatu behar dela oinarritzat hartuta, lehiaren defentsarako euskal organoek Lehiaren Defentsari buruzko Estatuko Lege berriak ezarri dizkien eginkizunak eta betebeharrak fidagarritasunez garatzeko gai izatea ahalbidetzen duen eginkizunak esleitzeko sistema aukeratu da.

Hori dela bide, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak proposatuta, Lehendakariak aurrez onespena eman eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko martxoaren 4ko bilkuran aztertu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.–*** Idazketa berria eman zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko 2. artikuluari, eta honela idatzita geratu da:

«2. artikulua.– Eskumenak.

Estatuak eta autonomia erkidegoek lehiaren defentsaren arloan dituzten eskumenen koordinazioari buruzko 1/2002 Legearen esparruan, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea aplikatuko du arlo hauetan:

y previamente planificada, ambos órganos vascos puedan desarrollar otras funciones que no se agotan con carácter de exclusividad en la resolución o en la instrucción de los procedimientos respectivamente.

Así, el Tribunal tendrá, entre otras funciones, la de elaboración de informes en relación sobre las ayudas públicas concedidas por las Administraciones públicas de la CAE, la emisión de informe preceptivo en la segunda del procedimiento de concentraciones o sobre los procedimientos de concesión de licencias de grandes establecimientos comerciales, solo por citar algunas de las más relevantes que trascienden sus propias funciones resolutorias.

Por su parte, el Servicio deberá emitir, entre otros, el informe preceptivo previsto en el artículo 5, apartado cuatro de la Ley 1/2002, 21 de febrero, en los casos que éste sea requerido en la fase de instrucción, deberá solicitar de los reguladores sectoriales el informe no vinculante previsto en el artículo 17.2.d) de la Ley estatal, etc. En definitiva, una serie de funciones que complementan la función de instrucción que también tienen atribuida con carácter general. Es decir, se ha huido de una asignación de funciones rígida o presidida únicamente por su anclaje en los términos resolución - instrucción en función de cada órgano y se ha optado por un sistema de asignación de funciones en el que, partiendo de la relevancia objetiva de cada uno de los dos órganos implicados en la defensa de la competencia en Euskadi y sobre la base de la necesaria planificación de esta materia en términos de la efectiva promoción de la competencia, los órganos vascos de defensa de la competencia sean capaces de desarrollar con solvencia las funciones y obligaciones que les vienen atribuidas por la nueva Ley estatal de Defensa de la Competencia.

En su virtud, a propuesta de las Consejeras de Hacienda y Administración Pública y de Industria, Comercio y Turismo, previa aprobación del Lehendakari, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 4 de marzo de 2008,

DISPONGO:

***Artículo primero.–*** Se da una nueva redacción al artículo 2 del Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que queda redactado como sigue:

«Artículo 2.– Competencias.

Corresponde al Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia, en el marco de la Ley 1/2002, de coordinación de las competencias del Estado y las Comunidades Autónomas en materia de Defensa de la Competencia, la aplicación de la Ley 15/2007, de 3 de julio, de Defensa de la Competencia, en los siguientes ámbitos:

a) Lege horren 1, 2 eta 3. artikuluetan ezarritako portaerak xede hartzen dituzten prozeduretan. Horiei dagokienez, hain zuzen, ondoko ahalmenak izango ditu: zehapenak ezartzekoa, berak emandako ebazpenetan ezartzen diren betebeharren gainean hertsatze-isunak jartzekoa, kautela-neurriak hartzekoa, nahitaezko betearazpenetarako neurriak hartzekoa eta isunak ordaintzetik salbuetsi edo horien zenbatekoa murriztekoa.

b) Arbitrajeak, zuzenbidezkoak nahiz ekitatezkoak, ebazteko hartutako erabakietan, gai honi buruzko indarreko legeriak ezarritakoaren arabera.

c) Dekretu honetan ezartzen diren kontsulta-funtzioetan, eta lehia sustatzeko eginkizunak betearaziz azterlanak, txostenak edo gomendioak ematean.

d) Lehiaren defentsari buruzko indarreko araudiarekin bat etorriz bere gain har ditzakeen gainerako eskumenetan.»

***Bigarren artikulua.***– Aldatu egin da Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko 3. artikuluko 3. idatz-zatia, eta honela idatzita geratu da:

«3.– Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, honako hauek izango dira Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiko kideek beren karguak uzteko arrazoi:

a) Uko egitea.

b) Agintaldia amaitzea.

c) Bateraezintasunak sortzea.

d) Dolozko delituagatik kondenatua izatea.

e) Ezintasun iraunkorra sortzea.

f) Eusko Jaurlaritzak kargutik kanpo uztea erabakitzea, bere eginbeharren ez-betetze larriagatik, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko eta Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko titularrek proposatuta eta Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiaren osoko bilkuran gehiengoak ez-betetze larrien gainean aldez aurretik iritziren bat emanda.»

***Hirugarren artikulua.***– Idazketa berria eman zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko 6. artikuluari, eta honela idatzita geratu da:

«6. artikulua.– Osoko bilkuraren eginkizunak.

a) Los procedimientos que tengan por objeto las conductas previstas en los artículos 1, 2 y 3 de la citada Ley y, en relación con los mismos, la potestad de imponer sanciones, imponer multas coercitivas respecto de las obligaciones establecidas en sus resoluciones, adoptar medidas cautelares y de ejecución forzosa y eximir del pago de multas o reducir sus importes.

b) La resolución de los arbitrajes, tanto de derecho como de equidad, en los términos contenidos en la legislación vigente en esa materia.

c) Las funciones consultivas recogidas en el presente Decreto, así como la elaboración de estudios, informes o recomendaciones en el ejercicio de funciones de promoción de la competencia.

d) Cualesquiera otras competencias que pueda asumir de conformidad con la normativa vigente de defensa de la competencia.»

***Artículo segundo.***– Se modifica el apartado 3 del artículo 3 del Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que queda redactado en los siguientes términos:

«3.– No obstante lo establecido en el párrafo anterior, los miembros del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia cesarán en sus cargos:

a) Por renuncia.

b) Por expiración del término de su mandato.

c) Por incompatibilidad sobrevenida.

d) Por haber sido condenado por delito doloso.

e) Por incapacidad permanente.

f) Mediante separación acordada por el Gobierno Vasco por incumplimiento grave de los deberes a su cargo, a propuesta de los titulares de los Departamentos de Hacienda y Administración Pública e Industria, Comercio y Turismo, previa apreciación de los casos de incumplimiento grave por parte de la mayoría del Pleno del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia.»

***Artículo tercero.***– Se da una nueva redacción al artículo 6 del Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que queda redactado como sigue:

«Artículo 6.– Funciones del Pleno.

Hauexek dira Auzitegiaren Osoko Bilkuraren eginkizunak:

a) Erabakiak hartzea eta ebazpenak ematea, dekretu honetako 2. artikuluaren a) letran ezarritako eskumenak baliatuta eta bertan finkatutako jardun-esparruaren barruan.

b) Arlo honi buruzko indarreko legeria aplikatuz operadore ekonomikoek bere gain uzten dituzten zuzenbidezko nahiz ekitatezko arbitraje-prozedurak ebaztea.

c) Uztailaren 3ko 15/2007 11.5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoek bere lurralde-esparruetan ematen dituzten diru-laguntzen gaineko txostenak egitea.

d) Uztailaren 3ko 15/2007 58.1. artikuluan ezartzen den aginduzko txostena egitea, kontzentrazio ekonomikoen arloko prozeduraren bigarren fasearen barruan.

e) Europako Erkidegoaren Ituneko 81. eta 82. artikuluetan eta Lehiaren Defentsarako Legeko 1., 2. eta 3. artikuluetan jasotzen diren jokaerei dagokienez, otsailaren 21eko 1/2002 Legeko 5. artikuluko Lau idatz-zatian ezartzen den aginduzko txosten ez-loteslea egitea, ebazpen-fasean eskatzen denean; baldin eta jokaerok Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean eragin handia badute, autonomiaz gaindiko esparrua ukitzen dutelako edo Estatuko merkatu osoa ukitzen dutelako.

f) Araudiak ezartzen duen guztietan txostenak egitea.

g) Uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 1. eta 2. artikuluak aplikatzeari buruzko informazioa ematea eta oharrak aurkeztea organo jurisdikzionalei, betiere, Prozedura Zibilaren Legean ezarritakoa betez.

h) Eskudun organo judizialak hala eskatzen dionean, uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 1., 2. eta 3. artikuluetan ezartzen diren portaeren egileek horien kalteren bat izan duten salatzaileei eta hirugarrenei ordaindu behar dizkien kalte-ordainak zenbatzeko irizpideei buruzko irizpena ematea.

i) Dekretu honetako 15. artikuluan ezartzen diren errekurtsoak ebaztea.

j) Uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 54. artikuluan ezartzen diren kautela-neurriak hartzea.

k) Barne-arautegia prestatzea administrazio-jarduna ezartzeko eta zerbitzuen antolamendua

Corresponden al Pleno del Tribunal las siguientes funciones.

a) Adoptar acuerdos y resoluciones en ejercicio de las competencias y en el marco de los ámbitos de actuación referidos en la letra a) del artículo 2 de este Decreto.

b) Resolver los procedimientos de arbitraje, tanto de derecho como de equidad, que le sean sometidos por los operadores económicos en aplicación de la legislación vigente en esa materia.

c) Elaborar informes sobre ayudas públicas concedidas por las Administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi en sus respectivos ámbitos territoriales, de conformidad con lo establecido en el artículo 11.5 de la Ley 15/2007, de 3 de julio.

d) Emitir el informe preceptivo previsto en el artículo 58.1 de Ley 15/2007, de 3 de julio, dentro de la segunda fase del procedimiento en materia de concentraciones económicas.

e) Emitir el informe preceptivo no vinculante previsto en el artículo 5 apartado cuatro de la Ley 1/2002, de 21 de febrero, en relación con las conductas recogidas en los artículos 81 y 82 del Tratado de la Comunidad Europea, y en los artículos 1, 2 y 3 de la Ley de Defensa de la Competencia que, afectando a un ámbito supraautonómico o al conjunto del mercado estatal, incidan de forma significativa en el territorio de la Comunidad Autónoma, cuando el informe sea requerido en fase de resolución.

f) Emitir informes en todos los casos en que la normativa así lo prevea.

g) Aportar información o presentar observaciones a los órganos jurisdiccionales sobre cuestiones relativas a la aplicación de los artículos 1 y 2 de la Ley 15/2007, de 3 de julio, en los términos previstos en la Ley de Enjuiciamiento Civil.

h) Dictaminar, cuando le sea requerido por el órgano judicial competente, sobre los criterios para la cuantificación de las indemnizaciones que los autores de las conductas previstas en los artículos 1, 2 y 3 de la Ley 15/2007, de 3 de julio, deban satisfacer a los denunciantes y a terceros que hubiesen resultado perjudicados como consecuencia de aquellas.

i) Resolver los recursos que se recogen en el artículo 15 del presente Decreto.

j) Adoptar las medidas cautelares que contempla el artículo 54 de la Ley 15/2007, de 3 de julio.

k) Elaborar un reglamento interno en el que se establezca su funcionamiento administrativo

zehazteko. Barne arautegi hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

l) Auzitegiaren idazkaria izendatzea (7.5. artikuluan finkatu dira honek izan behar dituen ezaugarriak) eta, behar izanez gero, kargutik kentzea.

m) Lehendakariaren eta gainerako kideen errefusatzeak, bateraezintasunak eta diziplina-zentzarazpenak ebaztea eta beren eginkizunak betetzeko gauza diren eta ez-betetze larririk egiten duten epaitzea.

n) Lehiaren defentsa dela-eta, egiten dizkieten galderei erantzutea, Eusko Legebiltzarrak, Eusko Jaurlaritzako sailek, foru aldundiek, Euskal Autonomia Erkidegoko toki korporazioek, beste administrazio publiko batzuek, eta Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritzako ganberek, lanbide-elkargoek, enpresa-elkarteek, sindikatuek edo kontsumitzaile eta erabiltzaile elkarteek eginiko galderei, hain zuzen.

ñ) Lehiaren Batzorde Nazionalari prozedura amaitzen duten erabakien eta ebazpenen berri ematea, otsailaren 21eko 1/2002 Legeko 5. artikuluko Hiru idatz-zatian xedatutakoa betez.

o) Dekretu honetako 18. artikuluan ezartzen diren jarduketen bidez lehia eraginkorra bultzatzea.

p) Urteko memoria egitea.

q) Aurrekontuaren proposamena prestatzea.»

***Laugarren artikulua.–*** Idazketa berria eman zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko 11. artikuluari, eta honela idatzita geratu da:

«11. artikulua.– Eusko Jaurlaritzari informazioa eman beharra.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak memoria bat egin beharko du urtero eta Eusko Jaurlaritzari eman behar dio. Bertan, urtean zehar instruitutako espedienteak, ezarritako zehapenak eta Auzitegiak egindako jarduketa guztien berri jakiteko behar den informazio guztia agertu behar da.»

***Bosgarren artikulua.–*** Idazketa berria eman zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko 12. artikuluari, eta honela idatzita geratu da:

y la organización de sus servicios. Dicho reglamento interno se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

l) Nombrar al Secretario o Secretaria del Tribunal entre las personas referidas en el artículo 7.5 de este Decreto y acordar, en su caso, su cese.

m) Resolver las recusaciones, incompatibilidades y correcciones disciplinarias y apreciar la incapacidad y el incumplimiento grave de sus funciones por el Presidente o la Presidenta y los o las vocales.

n) Responder a las consultas que, en materia de defensa de la competencia, le sean formuladas por el Parlamento Vasco, el Gobierno Vasco, los distintos Departamentos del Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales, las Corporaciones Locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, otras Administraciones públicas, las Cámaras de Comercio, los Colegios Profesionales y las organizaciones empresariales, sindicales o de consumidores y usuarios de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

ñ) Comunicar a la Comisión Nacional de la Competencia los acuerdos y resoluciones que pongan fin al procedimiento, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5 Tres de la Ley 1/2002, de 21 de febrero.

o) Promover la existencia de una competencia efectiva a través de las actuaciones que se prevén en el artículo 18 de este Decreto.

p) Elaborar una memoria anual.

q) Elaborar la propuesta de su presupuesto.»

***Artículo cuarto.–*** Se da una nueva redacción al artículo 11 del Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que queda redactado como sigue:

«Artículo 11.– Información al Gobierno.

El Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia deberá elaborar, a los efectos de comunicación y traslado al Gobierno, una memoria anual en la que se recojan los expedientes instruidos, las sanciones impuestas, y toda aquella información que permita tener conocimiento de las actuaciones llevadas a cabo por este órgano.»

***Artículo quinto.–*** Se da una nueva redacción al artículo 12 del Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que queda redactado como sigue:

«12. artikulua.– Atxikipena.

Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren lana izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuaren bitartez, Dekretu honetan ezartzen den lehiaren defentsari dagokionez espedienteak instruitzea, ikertzea eta azterlanak eta txostenak egitea.»

***Seigarren artikulua.–*** Idazketa berria eman zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko 13. artikuluari, eta honela idatzita geratu da:

«13. artikulua.– Eginkizunak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak honako eginkizunak izango ditu:

a) Ofizioz, norberaren ekimenez, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak eskatuta edo salaketa bidez, uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 1., 2. eta 3. artikuluetan ezartzen diren jokaeren ziozko zehapen prozeduren instrukzioa, ikerketa eta ebazpen-proposamena egitea; gainera, zehapen espedienteen instrukzioan gerta daitezkeen gorabeheren gainean ebatzi eta kautela-neurriak har daitezen proposatuko du.

b) 15/2007 Legean eta hori garatzen duten arauetan xedatzen diren betebeharrak betearazten eta betetzen direla zaintzea, baita legea aplikatzean hartzen diren ebazpenak eta erabakiak ere. Alabaina, horiek betetzen ez badira Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari proposatuko zaio hertsatzeko isunak jar ditzan.

c) Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak hartzen dituen erabaki eta akordioen gainean ezarritako betebeharretan hertsatzeko isunak jartzea, baldin eta 16. artikuluan ezarritako lankidetza-betebeharra betetzen ez bada; horrez gain, antolamenduan ezartzen den nahitaezko betearazpenerako bestelako neurriak ezartzea.

d) Sektoreetako organo arautzaileei uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 17.2.d) artikuluan ezartzen den txosten ez-loteslea eskatzea, arau horretako 1., 2. eta 3. artikuluak aplikatuz lehiaren jokaera murriztaileen zioz hasitako espedienteei dagokienez.

e) Lehiaren Defentsarako Legeko 1., 2. eta 3. artikuluetan jasotzen diren jokabideei dagokienez, otsailaren 21eko 1/2002 Legeko 5. artikuluko Lau idatz-zatian ezartzen den aginduzko txosten ez-loteslea egitea, instrukzio fasean eskatzen denean; baldin eta jokabideok Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean eragin handia ba-

«Artículo 12.– Adscripción.

La Dirección de Economía y Planificación, a través del Servicio de Defensa de la Competencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi, ejercerá las funciones de instrucción de expedientes, investigación, estudios y elaboración de informes en materia de defensa de la competencia previstas en el presente Decreto.»

***Artículo sexto.–*** Se da una nueva redacción al artículo 13 del Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que queda redactado como sigue:

«Artículo 13.– Funciones.

1.– Corresponden al Servicio de Defensa de la Competencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi las siguientes funciones:

a) Realizar, de oficio, a iniciativa propia o a instancia del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia, o bien por denuncia, la instrucción, investigación y propuesta de resolución de los procedimientos sancionadores por las conductas previstas en los artículos 1, 2 y 3 la Ley 15/2007, de 3 de julio, resolver sobre las cuestiones incidentales que puedan suscitarse en el marco de la instrucción de los expedientes sancionadores, así como proponer la adopción de medidas cautelares.

b) Vigilar la ejecución y cumplimiento de las obligaciones dispuestas en la Ley 15/2007 y en sus normas de desarrollo, así como de las resoluciones y acuerdos que se adopten en aplicación de la misma, proponiendo al Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia, en caso de incumplimiento, la imposición de multas coercitivas.

c) Imponer multas coercitivas respecto de las obligaciones establecidas en los acuerdos y actos adoptados por el Servicio de Defensa de la Competencia, en el supuesto de incumplimiento del deber de colaboración previsto en el artículo 16, así como adoptar otras medidas de ejecución forzosa previstas en el ordenamiento.

d) Solicitar a los reguladores sectoriales el informe no vinculante previsto en el artículo 17.2.d) de la Ley 15/2007, de 3 de julio, en el marco de los expedientes incoados por conductas restrictivas de la competencia en aplicación de los artículos 1 a 3 de esa misma norma.

e) Emitir el informe preceptivo no vinculante previsto en el artículo 5 apartado Cuatro de la Ley 1/2002, de 21 de febrero, en relación con las conductas recogidas en los artículos 1, 2 y 3 de la Ley de Defensa de la Competencia que, afectando a un ámbito supraautonómico o al conjunto del mercado estatal, incidan de forma signifi-

dute, autonomiaz gaindiko esparrua ukitzen dutelako edo Estatuko merkatu osoa ukitzen dutelako.

f) Lehiaren Batzorde Nazionalari prozedura amaitzeko instrukzio fasean hartu diren erabakien eta ebazpenen berri ematea, otsailaren 21eko 1/2002 Legeko 5. artikuluko Hiru idatz-zatian xedatutakoa betez.

g) Artikulu honetako 2. idatz-zatian aipatzen diren enpresen edo enpresa-elkarteen ikuskapenak egitea.

h) 1/2002 Legeko 2.1. artikuluko lehenengo paragrafoan eta 2.2. artikuluko lehenengo paragrafoan aipatzen diren jakinarazpenak egitea eta jasotzea.

i) Arbitraje-prozedura bideratzea, baldin eta eskumendetasunaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko lehiaren defentsarako arloko araudia aplikatzea bada.

j) Dekretu honetako 18. artikuluan jasotzen diren jarduketen bidez lehia eraginkorra bultzatzeko beste eginkizun batzuk betetzea.

k) Otsailaren 21eko 1/2002 Legearen arabera berari dagozkion gainerako eginkizun guztiak.

2.– Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzako titularrak baimenduko ditu uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 40. artikuluan ezartzen diren enpresen edo enpresa-elkarteen ikuskapenak, baita ikuskapen horiek egingo dituzten Lehiaren Defentsarako Zerbitzuko funtzionarioen izendapena ere.

Ikuskatzeko zeregin horien barruan, aurreko paragrafoan aipatzen diren funtzionarioek ikuskapen-arloko aditu edo perituak eraman ditzakete laguntzeko, baita informazioaren teknologia berrietan adituak ere. Horiek guztiek, dena den, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzako titularren baimena izan beharko dute.»

*Zazpigarren artikulua.*– Idazketa berria eman zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko 14. artikuluari, eta honela idatzita geratu da:

«14. artikulua.– Araubide juridikoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak tramitatzen dituen espedienteetan uztailaren 3ko 15/2007 Legeko IV. ti-

cativa en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi, cuando el informe sea requerido en fase de instrucción.

f) Realizar las comunicaciones a la Comisión Nacional de la Competencia de los acuerdos y resoluciones adoptados en la fase de instrucción que pongan fin al procedimiento, previstas en el artículo 5 Tres de la Ley 1/2002, de 21 de febrero.

g) Realizar las inspecciones de empresas o asociaciones de empresas a las que se refiere el apartado 2 de este artículo.

h) Realizar y recibir las notificaciones a que se refieren los artículos 2.1 párrafo primero y 2.2 párrafo primero de la Ley 1/2002.

i) Instruir el procedimiento arbitral, siempre que la sumisión tenga por objeto la aplicación de la normativa en materia de defensa de la competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

j) Otras funciones de promoción de la existencia de una competencia efectiva a través de las actuaciones que se recogen en el artículo 18 de este Decreto.

k) Cualesquiera otras funciones que le correspondan de conformidad con la Ley 1/2002, de 21 de febrero.

2.– A la persona titular de la Dirección de Economía y Planificación le corresponde autorizar las inspecciones a empresas y asociaciones de empresas previstas en el artículo 40 de la Ley 15/2007, de 3 de julio, así como designar a los funcionarios y funcionarias del Servicio de Defensa de la Competencia que hayan de realizarlas.

En el marco de las funciones de inspección, los funcionarios y funcionarias referidos en el párrafo anterior podrán ir acompañados de expertos o peritos en las materias sobre las que verse la inspección, así como de personas expertas en nuevas tecnologías de la información los cuales deberán estar debidamente autorizados por la persona titular de la Dirección de Economía y Planificación.»

*Artículo séptimo.*– Se da una nueva redacción al artículo 14 del Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que queda redactado como sigue:

«Artículo 14.– Régimen jurídico.

A los expedientes que se tramiten por el Servicio de Defensa de la Competencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi les será de aplica-

tuluko I. eta II. kapituluetan eta V. tituluan ezartzen diren prozedurak aplikatuko dira.»

*Zortzigarren artikulua.–* Idazketa berria eman zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko 15. artikuluari, eta honela idatzita geratu da:

«15. artikulua.– Errekurtsoak.

1.– Lehiaren defentsarako arloan dituen eginkizunak betez, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak ematen dituen egintzek defentsarik eza sortzen badute edo eskubide nahiz interes legitimoetan kalte konponezinik eragiten badute, errekurritu ahal izango dira, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegian.

2.– Aurreko idatz-zatian aipatutako errekurtsoak uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 47. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera tramitatu eta ebatziko dira.

3.– Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak ematen dituen ebazpen eta egintzei ezin izango zaie errekurtsorik jarri administrazio-bidean; horien aurka soilik administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.»

*Bederatzigarren artikulua.–* Ezabatu egin da Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko 16. artikulua.

*Hamargarren artikulua.–* Aldatu egin da Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko IV. kapituluaren izenburua, eta honela geratu da:

«IV. KAPITULUA
LAGUNDU BEHARRA ETA DATUAK ISILPEAN EDUKI BEHARRA»

IV. kapitulu honetan 16. eta 17. artikuluak sartu dira.

*Hamaikagarren artikulua.–* Aldatu egin da Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko 17. kapitulua; orain 16. artikulua da eta honela idatzita geratu da:

«16. artikulua.– Lagundu beharra eta informazioa eman beharra.

ción el procedimiento previsto en los Capítulos I y II del Título IV y en el Título V de la Ley 15/2007, de 3 de julio.»

*Artículo octavo.–* Se da una nueva redacción al artículo 15 del Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que queda redactado como sigue:

«Artículo 15.– Recursos.

1.– Los actos que dicte la Dirección de Economía y Planificación en ejercicio de sus funciones en materia de defensa de la competencia que produzcan indefensión o perjuicio irreparable a derechos o intereses legítimos serán recurribles ante el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia.

2.– A la tramitación y resolución de los recursos referidos en el apartado anterior les será de aplicación el procedimiento establecido en el artículo 47 de la Ley 15/2007, de 3 de julio.

3.– Las resoluciones y actos dictados por el Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia no serán objeto de recurso en vía administrativa y contra los mismos solo podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, de conformidad con lo establecido en la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.»

*Artículo noveno.–* Se suprime el artículo 16 del Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

*Artículo décimo.–* Se modifica el título del Capítulo IV del Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que queda formulado como sigue:

«CAPÍTULO IV
DEL DEBER DE COLABORACIÓN Y DEL DEBER DE SECRETO»

Este Capítulo IV incluirá los artículos 16 y 17.

*Artículo decimoprimero.–* Se modifica el artículo 17 del Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que pasa a ser el artículo 16 y queda redactado como sigue:

«Artículo 16.– Deberes de colaboración e información.

Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legeko 39. artikuluan ezarritakoaren arabera, pertsona fisiko edo juridikoek eta Administrazio Publikoetako organo eta erakundeek nahitaez lagundu behar diete dekretu honetan arautzen diren lehiaren defentsarako organoei. Organo eta erakunde hauek eskatutako informazio guztia eman beharko diete, lehiaren defentsarako arloan indarreko legeria aplikatzeko behar badute; informazio hori emateko 10 eguneko epea izango dute, baina epe hau aldatu ahal izango da eskatutakoaren edo kasuaren arabera horretarako arrazoirik balego.»

***Hamabigarren artikulua.–*** V. kapitulu berria erantsi zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuari.

«V. KAPITULUA
JARDUKETEN PLANGINTZA»

***Hamahirugarren artikulua.–*** Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu duen eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri dituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuko 18. kapitulua orain 17. artikulua da eta 18. artikulu berria sartu da. Honela idatzita geratu da:

«18. artikulua.– Lehiaren sustapena.

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak, biek batera, urtero onetsiko dute merkatuetan lehia eraginkorra egoteko sustapen-jardueren programa bat. Planifikatu beharreko lanak, besteak beste, hurrengo ekintzen bidez garatuko dira:

a) Lehiaren arloan azterlanak eta ikerlanak egitea.

b) Sektore ekonomikoei eta merkatuei buruzko txosten orokorrak egitea, lehia askea oinarritzat hartuta.

c) Sektore publikoaren jardunari buruzko txostenak egitea, baita lege-mailako arauen arabera aplikagarriak diren merkatuetan lehia eraginkorra mantentzea eragozten duten egoerei buruzko txostenak ere.

Txosten horien emaitzen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoei gomendioak egingo dizkio, egoki bada, lehiaren defentsarako arloari buruz.»

En el marco de lo establecido en el artículo 39 de la Ley 15/2007, de 3 de julio, de Defensa de la Competencia, toda persona física o jurídica, así como los órganos y organismos de cualquier Administración Pública quedan sujetos al deber de colaboración con los órganos de defensa de la competencia regulados en el presente Decreto, estando obligados a proporcionar a éstos, en el plazo de 10 días que podrá modificarse de forma motivada en razón de lo solicitado o de la naturaleza del caso, toda la información que les sea requerida que pueda resultar necesaria para la aplicación de la legislación vigente en materia de defensa de la competencia.»

***Artículo decimosegundo.–*** Se añade un nuevo Capítulo V al Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, con el siguiente enunciado:

«CAPÍTULO V
DE LA PLANIFICACIÓN DE ACTUACIONES»

***Artículo decimotercero.–*** El artículo 18 del Decreto 81/2005, de 12 de abril, de creación del Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y de asignación de funciones del Servicio de Defensa de la Competencia en la Comunidad Autónoma de Euskadi, pasa a ser el artículo 17 y se añade un nuevo artículo 18, dentro del Capítulo V con la siguiente redacción:

«Artículo 18.– Promoción de la competencia.

El Tribunal Vasco de Defensa de la Competencia y el Servicio de Defensa de la Competencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de forma conjunta, aprobarán anualmente un programa de actuaciones de promoción para la existencia de una competencia efectiva en los mercados. Los trabajos objeto de planificación se desarrollarán, entre otras, mediante las siguientes actuaciones:

a) La realización de estudios y trabajos de investigación en materia de competencia.

b) La elaboración de informes generales sobre sectores económicos y mercados en términos de libre competencia.

c) La preparación de informes sobre la actuación del sector público y sobre las situaciones de obstaculización del mantenimiento de la competencia efectiva en los mercados que resulten de aplicación de las normas legales.

A resultas de dichos informes podrán dirigirse recomendaciones sobre materias de defensa de la competencia a las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.»

XEDAPEN IRAGANKORRA.– Formalki bezala hasitako prozedurak.

Dekretu hau indarrean jarri baino lehen Euskal Autonomia Erkidegoko lehiaren defentsarako organoen arloan hasita dauden prozedurak, hasi zirenean eginkizunak esleitzeko indarrean zeuden arauen arabera tramitatu eta ebatziko dira.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko martxoaren 4an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA.– Procedimientos iniciados formalmente.

Los procedimientos iniciados antes de de la entrada en vigor de este Decreto en materias competencia de los órganos de defensa de la competencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se tramitarán y resolverán con arreglo a las normas de asignación de funciones vigentes en el momento de su inicio.

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 4 de marzo de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

## 1643

41/2008 DEKRETUA, martxoaren 4koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen ordainsariei buruzkoa.

Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriarekin, Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoarekin (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatuta), Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearekin eta lan-arloko legediarekin batera, Autonomia Estatutuaren 16. artikuluak euskal erakundeei esleitzen dien eskumenen esparruaren barruan onetsi da honako Dekretu hau. Halaber, Konstituzioaren 27.10 artikuluak aitortzen duen unibertsitateen autonomiaren printzipioa errespetatuz onetsi da.

6/2001 Lege Organikoak irakasle eta ikertzaile kontratatuen araubidea ezartzeko eskumena aitortzen die autonomia-erkidegoei; horretarako oinarriak Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko 3/2004 Legean azaltzen dira. Hala, Lege Organiko horrek bide berria sortu du karrera akademikoan: lan-kontratua izango du ardatz, eta unibertsitate publikoak hautatuko ditu irakasleak zuzenean.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

## 1643

DECRETO 41/2008, de 4 de marzo, de retribuciones del personal docente e investigador de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

El presente Decreto se aprueba en el marco de las competencias que a las Instituciones Vascas atribuye el artículo 16 del Estatuto de Autonomía, en conexión con la disposición adicional primera de la Constitución, la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre, de Universidades, y su modificación por la Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril, la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, y la legislación laboral. Todo ello desde el respeto al principio constitucional de autonomía universitaria reconocido en el artículo 27.10 de la Constitución.

La Ley Orgánica 6/2001 reconoce a las Comunidades Autónomas la regulación del régimen del personal docente e investigador contratado, cuyas bases están desarrolladas en la Ley 3/2004, del Sistema Universitario Vasco. Así, esta Ley Orgánica abre una nueva vía de carrera académica, articulada mediante la contratación laboral, en la que el profesorado será seleccionado directamente por la Universidad pública.